2. zbk. • 2020ko urtarrila

KA KLASEKO AHOTSA

Irakaskuntzako aldizkaria

IRAKASKUNTZAN STEILAS

LAN-PENTSIO-BIZITZA

DUINA

SOBERANÍA PARA EL CAMBIO SOCIAL

URTARRILA 30 ENERO

GREBA OROKORRA

carta de los derechos sociales euskal herriko eskubide sozialen karta

EAE Publikoko Irakasleak	Hezkuntza bereziko hezitzaileak	Haurreskolak Partzuergoa
Euskal Eskola Publikoaz Harro!	Aldarrikapenak	Mozorrotutako garapena
Irakaskuntza Pribatuak	Nafarroa Publikoko Irakasleak	UPV/EHU
Gatazkari amaiera	Ordezkoen zerrendak bateratzea	Lan Eskeintza Publikoak

KA
KLASEKO AHOTSA

03
EDITORIALA

04
EAE PUBLIKOKO IRAKASLEAK
04 Euskal eskola publikoaz harro! _ Matrikulatu euskal eskola publikoan
05 Langile guztiek eskubide berdinak jubilatzeko orduan!
06 Eskola publikoa erdigunean jarriko duen Eskola mapa inoiz baino beharrezkoagoa da

08
HEZKUNTZA BEREZIKO HEZITZAILEAK
08 Sektoreko aldarrikapenak

10
HAURRESKOLAK PARTZUERGOA
10 Haurreskolak Partzuergoa eta mozorrotutako garapena
11 Haurreskolak Partzuergoa doakoa eta hezkuntzan integratua _ Haurreskolak Partzuergorako kudeaketa eredu berria aldarrikatzen dugu: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren kudeaketa zuzena

12
IRAKASKUNTZA PRIBATUAK
12 Gatazkari amaiera eman dion akordioa sinatu dugu
14 Berrikuspen medikoak bajan
15 Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Lanbidek txanda-kontratuen laguntzetarako 2020rako egin duen deialdiari; laguntzak 1 milioi eurokoak izango dira _ Jaiotza eta adingabeen zaintza

16
UPV/EHU
16 UPV/EHUk orain arteko lan eskaintza publikorik handiena egingo du administrazio eta zerbitzuetako langileentzat _ Emaitza onak EHUko klaustroko hauteskundetan
17 EHU: aurrekontu hauekin... Unibertsitate publikoa garatu ezin
18 2019ko IRIen arloko Lan Eskaintza Publikoa

19
NAFARROA PUBLIKOKO IRAKASLEAK
19 Irakasle kontratatuen zerrendak kudeatzeko formularik onena, zerrendak bateratzea!

20
LGTBIQ+
20 Detektaezina, transmitiezina

22
IDAZKARITZA FEMINISTA
22 Aurrekontuak _ Idazkaritza feminista

23
LAN OSASUNA
23 2019an hildako pertsonak: 44 _ Osasun azterketak _ Eusko Jaurlaritzari, legea betearazteko eskaera

24
JENDARTE MUGIMENDUAK
24 Itunak-transnazionalak _ Kanpaina iraunkorra Agrotoxikoen aurka eta bizitzaren alde _ Txile _ Klimaren aldeko goi-bilera soziala
25 Genero Ekintzarako Plana _ Larrialdi klimatikoaren eta planetarioaren egoerari aurre egingo dion hezkuntza baten alde _ Parisko Akordioa
26 Enpresa-nazioartekotzea _ Amazoni planto _ Bolivian estatu kolpea _ Inor ez kale gorrian

27
HITZ ETA LAPITZ

Lege gordailua Bi-2729/00

editoriala

LAN-PENTSIO-BIZITZA ETA HEZKUNTZA DUINAK

Urtarrilaren 30ean, Pentsiodunen mugimenduaren deiari erantzunez, greba orokorra deitu dugu, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren eskutik. **STEILAS**ek grebarekin bat egiten du Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta osatzen dugun gainontzeko sindikatu eta eragileekin batera. Lan munduan egiturazkoa den prekariatearen aurrean, zerbitzu publikoen -bereziki Hekuntza Publikoaren suntsitzearen aurrean-, pentsioen murrizketen aurrean eta bizitzaren sostengarritasuna arriskuan jartzen duten neurrien aurrean, guk argi eta ozen aldarrikatzen ditugu **lan, pentsio, bizitza eta hezkuntza duinak!**

Garaia da azken urteotan murrizketekin kendu diguten guztia berreskuratzeko eta benetako aldaketa soziala gauzatzeko norabidean urratsak emateko. Pentsio, bizitza, lan baldintzak eta hezkuntza duinak nahi eta exijitzen ditugu. Horregatik guztiagatik, planeta suntsitzen ari den sistema ekonomiko eta kapitalista, neoliberal eta heteropatriarkal honi aurre egiteko mobilizazio eta grebara joko dugu. Bestelako eredu bat eraikitzeko alternatibak garatzen ari garenok: langileok, sindikatuok, pentsiodunok, feministok, gazteok, ikasleok, ekologistok, eskubide sozialen alde eta arrazakeriaren kontra borrokatzen dugunok urtarrilaren 30ean kaleak beteko ditugu gure aldarrikapenekin.

Sektore bakoitzaren aldarrikapen propioek lekua izango dute greba honetan. **STEILAS**etik Hezkuntza Publikoaren aldeko aldarrikapenak jarriko ditugu mahai gainean, beti egin ohi dugun bezala. Oraingoan, inoiz baino indar gehiagorekin, bat egiten dugu Karta Sozialaren programan jasotzen denarekin: *0-3 urteko zikloan nahiz gainerako hezkuntza mailetan (unibertsitatea barne) eskatzen den bezainbeste plaza eskaini, sare publikoan eta doan*. Iruñeko eta Gasteizko gobernuen neurriak, aldiz, kontrako norabidean doaz. Hegoaldeko gobernu horien politiken ondorioz zerbitzu publikoen estigmatizaziora garamatzan dinamikak etetea premiazkoa dela ozen esango dugu.

Zuriketa more zein berdetik haratago doazen hitz hutsaletatik neurrietara pasa dadin exijituko diegu Hegoaldeko Gobernuei, bizitza erdigunean jarriz, Haurreskola Partzuergoa doakoa izan dadin bermatuz eta aukera berdintasunean garrantzi berezia duen etapa horren pribatizazioa bertan behera utziz, esate baterako. Gure gizartearen aniztasunaren isla izan beharko litzatekeen eskolak, ezinbestean, publikoa izan behar du, denona eta denontzat den eskola. Oinarrizko eskubideak zerbitzu publikoen bidez bermatu behar baitira gutxi batzuen pribilegio bilakatu ez daitezen.

Oraingoan ez da enplegu greba soila izango. Zaintza greba, kontsumo greba, pentsiodunen, ikasleen eta langabetuen greba ere izango da. Asko ikasi dugu Mugimendu Feministak aurrera eraman dituen azken bi grebetatik, non aniztasunak eta elkarlanak emaitza oparoak eman dituzten. Zalantzarik ez izan ditugun gobernu neoliberalen murrizketa politika eta atzerakoien aurrean elkarlana dela aukera bakarra. Ezinbestean bermatu behar dugu gure borroka denon borroka izatea, gizartearen biziraupenaren borroka, alegia; finean, denak elkarren menpekoak garelako. Urtarrilaren 30ean ez gara gu pentsionistak babestera aterako, haiek baitira aspalditik gure etorkizuna babestearren borrokan daudenak. Arrazoi horiek direla medio, gurekin batera grebarekin eta mobilizazioekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu. Gure borroka, guztion borroka delako!

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO!

Abenduaren 2an Gasteizko Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataformak eta babesleak garen eragileek, EAE mailako "Euskal Eskola Publikoaz harro!" ekimena aurkeztu genuen. **STEILAS**ekin batera honako eragileek bultzatuko dute kanpaina: EHIGE (Euskal Herriko Guraso Elkarteen Konfederazioa), HEIZE (Ikastetxe publikoen zuzendarien federazioa), ELA, LAB eta CCOO sindikatuak, Ikasle Sindikatua, Ernai eta Eskola Publikoaren Aldeko gainerako Plataformak (Bilbokoa, Santurtzikoa eta Oiongoa).

Manifestu bat aurkeztu zen eta bertan jasotzen den bezala, Euskal Eskola Publikoaren aldeko aldarrikapena egitea da helburua. Hezkuntza Sailak sare publikoarekiko erakusten duen utzikeriaren aurrean, onartu nahi duen Hezkuntza Lege berriaren asmoaren atarian, eta hezkuntza arloan aspaldi hartu duen pribatizaziorako joeraz jakitun, Euskal Eskola publikoarekiko harrotasuna adierazi nahi dugu. Euskal hezkuntza sistema osorako eskola bakarra aldarrikatzen da, «herri bezala publikoaren, eskubide kolektiboen eta gure ume guztientzat aukera berdintasunaren alde eginez».

Kanpaina honekin Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxe, eskola, haurreskola eta laguntza zentro guztietara heldu nahi dugu. Xede hori lortzeko ezinbestekoa da **STEILAS**kideon bultzada, manifestuaren inguruko eztabaida zabaltzea, atxikimendua ematea eta irudikatzea (argazki bidez).

Jasotako atxikimendu guztiekin, prentsaurreko anitz bat emanez eta mobilizazio erraldoi batekin bukatuko da kanpaina hau.

Informazio guztia ondoko estekan aurkituko duzue:

www.plataformaeskolapublikoa.eus

Gora Euskal Eskola Publikoa!

Eusko Jaurlaritzak matrikulazio-prozesua baliatzen du herritarren arteko aldeak areagotzeko eta desberdintasunean oinarritutako jendarte bat sustatzeko. Lurralde bereko ikastetxeen artean ikasleak desberdin banatzeak ekitate-printzipioa higatzen du eta aukera-berdintasuna arriskuan jartzen du. Egoera aldatzeko osagai asko hartu behar dira kontuan, baina segregazioa matrikulazioarekin hasten da. Lehen urrats horretan, hots, geure seme-alabak hemengo eskola honetan edo beste hartan matrikulatu nahi ditugunean, orduantxe agertzen da eskola pribatuak babesten dituen sistema bat eta eskola publikoa, berriz, bigarren mailan uzten duena. **STEILAS**ek onarpen-dekretu berri bat eskatzen du, besteak beste, matrikulazio leihatila bakarra izango duena, ikasleen banaketa orekatuagoa bermatuko duena eta, adibidez, eremu bereko ikastetxeen artean hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen gehieneko proportzioa ezarriko duena edo konplexutasun handiko ikastetxeetan matrikula bizia mugatuko lukeena.

Langile guztiek eskubide berdinak jubilatzeko orduan!

EAEn unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publiko ez unibertsitarioko hirurogei urteko irakasleen artean konparaziozko bidegabekeria bizi dugu.

Otsailaren 19ko 2/1993 Legeak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzarako irakasleen kidegoak antolatu eta langileok erkidegoko administrazioaren kidegoetan integratu zituen.

Orduz geroztik, hau da 1993az geroztik, EAEn tratamendu desberdina dago irakasleen erretiroari dagokionez, klase pasiboen erregimenean (Muface) edo Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzen direlako.

2011. urtera arte, urte horretan ezarri baitzen lan-erreforma, karrerako funtzionario guztiek, edozein erregimenetakoak izanda ere, borondatezko erretiroa har zezaketen adin berarekin, hau da, 60 urterekin, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren (LOE) bigarren xedapen iragankorrari esker. Xedapen horrek aurreikusten zuen Gizarte Segurantzako araubide orokorrari atxikitako irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioek, borondatezko erretiroa eskatzeko unean, Estatuko Klase Pasiboen Erregimenean sar zitezkeela; beraz, Gizarte Segurantzako langileek 60 urterekin hartzen zuten erretiroa.

Lan-erreforma horretatik aurrera, Klase Pasiboen Erregimeneko (Muface) funtzionarioek erretiratu nahi badute, borondatezko erretiroari dagokionez, hirurogei urte beteta eta benetan zerbitzuan hogeita hamar urte aitortuta izan behar dituzte, eta, gainera, ez zaie koefiziente murriztailerik aplikatzen. Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, ordea, erretiroa hartzeko baldintzak askoz zorrotzagoak dira; izan ere, modu mailakatuan, 67 urtera iritsiko da erretiroa 2027an, eta, erretiro aurreratua izanez gero, kasu bakoitzean eskatzen den adina baino bi urte gutxiago bete beharko dira gutxienez, eta, horrez gain, hogeita hamabost urteko gutxieneko kotizazio-aldia egiaztatu beharko da, koefiziente murriztaile hau aplikatuta: hiruhileko bakoitzeko % 1,625 eta % 2 bitartekoa, kotizatutako urteen arabera.

Tratamenduen arteko ezberdintasun horrek sortutako diskriminazioa aspaldi salatu eta hori zuzentzeko neurriak eskatu genituen. Hala ere, gaur egun, oso erretiroeredu ezberdinak ditugu esleitutako erregimenenaren arabera.

Eragin-eremu txikiko egoera batzuk ere unean-unean onartu dira, eta aukera eman da **erretiroa hartzeko** araubidea aldatzeko, besteak beste, 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen xedapen gehigarrietako bat, Nafarroako Foru Komunitateko Irakasleen Kidegoen erretiroari dagokiona. Gogoratu behar da erkidego horretan, beste erkidego gehienetan bezalaxe, 2011. urtera arte karrerako funtzionario guztiak Mufacekoak zirela, eta, ondorioz, erretiroa hartzeko adinaren aldeak orain arte ez duela ia ondoriorik izan.

Desde el año 1993, en la CAV persiste distinto tratamiento a efectos de jubilación del personal docente, por su encuadramiento en el régimen de clases pasivas (Muface) o bien en el régimen general de la seguridad social.

Este tratamiento diferente, hace tiempo que se considera gravoso y discriminatorio, y ha motivado algunas disposiciones para su corrección. Sin embargo, en la actualidad seguimos enfrentándonos a un modelo de jubilación muy diferenciado en función del régimen al que se pertenezca.

Eskola publikoa erdigunean jarriko duen **Eskola mapa** inoiz baino beharrezkoagoa da

Eskola Mapa hezkuntza eskaintzaren plangintzarako oinarrizko tresna da eta egundoko garrantzia du hezkuntza sistemaren egituraketan. Unibertsitatez besteko ikastetxeak antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen ditu, besteak beste, eskola bilguneak, eragin eremuak, ikastetxeen tipologia, ikasle kopurua mailaka,hezkuntza ibilbideak, ikastetxeen arteko atxikipenak...

Indarrean dagoenak, 2009koak, 1996koa ordezkatu zuen aldaketa kualitatibo esanguratsu batzuekin. Bere garaian salatu genituen aldaketa horien ondorioak eta egungo egoeraren testuingurua ulertzeko ondo datozkigu. Hauexek batzuk:

Aurreko mapak sare publikoko esparrua arautzen zuen, egungoak aldiz hezkuntza eskaintza orokor berean uztartzen ditu ikastetxe publikoak eta itunpekoak. Berdindu nahian edo, gauza berbera balira bezala.

Ez gentozen bat inondik ere 2009koak ikastetxe pribatuak *zerbitzu publikoaren erantzulekide* adierazpenarekin, haien jabegoa, helburuak, ezaugarriak eta betekizunak ez baitziren kontuan hartzen. Tamalez denborak arrazoi eman digu, ardura partekatuari dagokionez, sareen arteko desoreka geroz eta handiagoa baita.

Bide horretan, gurasoek ikastetxea aukeratzeko eskubideari mugarik jarri ez izanak eta ituntze unibertsalaren arteko distortsioak, inongo kontrolik gabe gainera, bere bidea egin du eta testuinguru europarrean anomalia litzatekeen izaera dualeko sistema guztiz polarizatua indartu du.

Eskola mapak 10 urte egin dituenean, erakunde publikoek nahikoa babestu eta garatu al dute berezkoa beharko lukeen ikastetxe publikoen sarea?

Duela gutxi Hezkuntza sailak 2019-2020 ikasturteko hezkuntza eskaintzan dauden doako ikaspostu eta matrikulazio jaitsieraren ondorioz itxitako gelei buruz emandako informazioak honako argazkia erakusten digu:

Haurreskoletan (0-2 etapa) hezkuntza eskaintzari dagokionez 2019-2020 ikasturtean 8.582 ikaspostutatik 3.136 libre zeuden.

Unibertsitatez azpiko etapan aldiz, Eugenio Jiménez ikastetxeen arduradunak emandako informazioaren arabera, EAEn, 49.323 doako ikaspostu libre daude, 34.345 sare publikoan eta 15.078 sare itunduan.

Matrikula jaitsieraren ondorioz 2019-2020 ikasturtean itxitako gelen kopuruak 2 urteko mailan, HH 2.zikloan eta lehen hezkuntzan ondorengoak dira hurrenez hurren:

- Sare Publikoan: 13, 5, 5.
- Sare Itundu pribatuan: 13, 2, 10.

Gela gehigarriak (funts publiko soberakinak) sortzeari eta ituntzeari ekingo dio hezkuntza sailak aurrez adierazitako doako ikaspostuak libre izanda?

Hezkuntza arduradunei gogorarazi behar diegu hezkuntza eskaintza planifikazioaren baitan gauzatu behar dutela: Eusko Jaurlaritzak onartutako legeek zehaztutako aurrekontuei erreparatu behar die eta giza baliabideak zein materialak arduraz kudeatu. Ahalegin guztiak hezkuntza-arloko gizarte-eskariei erantzun egokia ematera bideratu behar ditu eta ez norbanako batzuen nahiak asetzera.

Bestalde Euskadiko Eskola Kontseiluak EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostenean (2015-2017), ikasle guztien eskola-arrakasta bermatzeko, nahiz ekitatea eta kohesio sozialaren bidean aurrera egiteko, proposatutako neurriak aipatu nahi ditugu:

Eskolatze hasieratik, eskola inklusiboa balioestea, baita eskolak kohesio sozialean eta aurrerapen kolektiboan egiten duen lana ere.

Atzerriko jatorriko eta ISEK maila baxueneko ikasleen kontzentrazio maila handieneko ikastetxeei modu zehatzean arreta ematea.

Diru publikoa jasotzen duten ikastetxeetan ikasleen eskolatze orekatua ahalbidetzeko neurriak hartzea.

Familiek beren seme-alabentzako ikastetxeak hautatzeko duten eskubidea ez da eskubide absolutua, sistema osoaren beharrizanen araberakoa izan behar da, ikasle guztiei erantzun eraginkor eta ekitatiboa eman ahal izateko. Hautaketa- eta onarpen-prozesuak hobetu egin behar dira oreka handiagoa txerta dadin eta ekitatean eragin negatiboak murrizteko.

2009ko eskola mapa dekretua, eskola publikoa erdigunean jartzeko bidean, aukera galdua izan zela adierazi genuen eta denborak eta ebidentziek arrazoi eman digute. Bistakoa baita egungo eskola mapa rekin alferrikakoa dela inolako planifikaziorik egitea.

Egungo eskola mapa 2008ko matrikula dekretuaren ondoren etorri zen bezala, besteak beste jaiotza tasaren gorakada testuinguruan, 2018ko matrikula dekretuaren ostean ere, eskola mapa berria ezartzea premiazkoa dela adierazten digu testuinguruak.

Eskola publikoa maparen erdigunean nahi dugu hezkuntza planifikazioa eta eskola kontseiluak egindako proposamenen bidean, **STEILAS**etik hauexek gehituko genituzke labur antzean:

Ikasle orori sistema publikoan ikaspostua bermatuko diona, baita gela edo lerro berriak zabaldu behar badira ere. Onartezina baita auzo edo herriek oraindik eskaintza publikorik ez izatea.

Etengabeko pribatizazioa eten eta baliabide publikoen erabilera arduratsua lehenetsiko lukeena. Bide horretan, itunpeko sarean derrigorrezko hezkuntzari ez dagozkion etapen finantziazioa, publikoaren beharrak estalitakoan gauzatu beharko lirateke, indarrean dagoen legeak dioen bezala.

Sare publikoan behar gehien duten ikastetxeei aplikatzen zaien Hezkuntza Beharren Indizeak hezkuntza plangintzan eta ondoriozko ituntze erabakietan kontuan hartu beharko litzake, baliabide publikoen erabilerak funtzio orekatzailea izan dezan.

Hezkuntza eskaintza errentagarritasun sozialaren irizpideen arabera neurtu eta ikastetxea aukeratzeko eskubideari mugak jarri, besteak beste.

Itunpeko sarean derrigorrezkoa ez den hezkuntza-mailen finantziazioa publikoaren beharrak estalitakoan gauzatu beharko litzateke. 2018ko matrikula dekretuaren ostean ere, eskola mapa berria ezartzea premiazkoa dela adierazten digu testuinguruak.

Horiek dira, gure ustez, eskola mapak izan beharreko ardatzak. Izan ere hezkuntza sistema aurrerakoi, anitz eta justu batek, haur eta gazteen ikaskuntza zein heziketa xedeak betetzearekin batera, beste helburu nagusi bati ere erreparatu beharko lioke: gizarte bereizketen orekatzaile funtzioa betetzea alegia. Ondorioz, jatorrizko desberdintasunak murriztu eta gizarte kohesiorako ahalmena irabaziko luke.

SEKTOREKO ALDARRIKAPENAK

Adinagatiko arreta zuzenaren murrizketa

Gure lan hitzarmeneko 51. artikuluak sektoreko 60 urtetik gorako langileei ordu murrizketa ezarriko zaiela zehazten du, irakasle funtzionarioei aplikatzen zaien bezalaxe. Murrizketen ondorioz, neurri hori langile guztiontzat bertan behera gelditu bazen ere, ikasturte honetan, karreradun funtzionarioek eskubide hori berreskuratu dute (ordu lektiboen 1/3 murrizteko aukera). Erretiro partzialera atxikitzeko gero eta neurri gogorragoak ditugula aintzat hartuta, aipatutako artikulua aplikatzeko exijitzen diogu Hezkuntza Sailari!

Ordezkoen araudia

Haurreskolak Partzuergoko langileek eta irakasleek duten bezala, guk ere ordezkoen araudi bat eskatzen dugu gure sektorerako. Izan ere, dokumentu bakar batean informazio esanguratsua barnebiltzeko eta Lurralde Ordezkaritzetako kudeaketa ezberdinak ekiditeko balioko liguke. Eskaerak idatziz nahiz ahoz (bileretan) egin dizkiogu Hezkuntza Sailari, baina oraindik beraien erantzunik ez dugu jaso.

Gaixotasun profesionalak

Eguneko lanaldi luzeek, ikasleak mugitzeko esfortzuek, ikasle batzuen eraso fisikoek... gure osasunean daukaten eragina nabaria da; horiengatik sortutako gaixotasunak ordea, ez dira lan-gaixotasuntzat hartzen, eta ondorioak (fisioterapia saioak, errehabilitazio tratamenduak...) langilearen ardurapean gelditzen dira. Honez gain, irakasleek "noduloak" gaixotasun profesional gisara aitortuta dituzten bezala, gure sektorean ere "noduloak" gutxienez jasota izatea eskatzen dugu.

Zerrendetan puntuatzea

Haurreskolak Partzuergoko langileen lan esperientzia dagoeneko maisu-maistren kidegoan zenbatzen da eta Haurreskolak Partzuergoko zerrendetan lan egiteko eskatzen den titulazioarekin (haur hezkuntzako goi mailako teknikaria) heziketa bereziko hezitzaileen zerrendetan lan egin daitekeela kontuan izanda, gizarte integrazioko goi mailako teknikari titulua, Partzuergoko zerrendetan sartzeko ere onartu dadila exijitzen dugu (alderantziz den bezala). Bide batez, heziketa bereziko zerrendetako lan esperientziak ere Haurreskolak Partzuergoko zerrendetan puntuatzea eskatzen dugu.

Era berean, ikasleekin uneoro eskuhartzen dugula eta irakasgai bat baino gehiago menperatu behar ditugula aintzat hartuz, gure lan esperientzia (beharrezko titulazioa izanik) maisu maistren kidegoan ere zenbatzea eskatzen dugu. **STEILAS**etik gure kolektiboaren errekonozimendua eta gure lanaren aitortza eskatzen diogu Hezkuntza Sailari.

Epearen garapena

EPEaren inguruan **STEILAS**etik hainbat eskaera luzatu dizkiogu gure pertsonal zuzendariari: atera beharreko lanpostu guztiak perfilatuak izatea, gaitegia gutxienez sei hilabete arinago luzatzea eta itxia izatea, hainbat urteetan aukera izan ez duten langileei kontsolidatzeko aukera ematea, zeinu hizkuntzako interpreteen gatazka kontuan hartzea edota hartu beharreko neurriak hartzea titulazioen gatazka konpontzen ez den bitartean (interpretatzeko gaitasuna ebaluatuz…), besteak beste.

Sexenioak

2018an sinatutako akordioak kolektibo batzuen eta maisu maistren ordainsarien ekiparazioa jasotzen zuen. Neurria gauzatzeko momentuan, sailak ulertu zuen sexenioak ez zirela egon behar ekiparazio horren barne, eta ez ordaintzea erabaki zuen. **STEILAS**etik akordioan jasotakoa betetzeko aldarrikatzen dugu. Momentuz, gure zerbitzu juridikoaren bitartez langileek demanda judiziala sartu ahal izan dute, eta espero dugu, aldeko sententzia batzuk jaso ondoren, Eusko Jaurlaritzak atzera egitea eta langile hauei dagokiena ordaintzen hastea.

Ordezkoentzako udaren puntuaketa/kobrantza

Urteak dira, **STEILAS**ek honen alde borrokatzen duela. Hezkuntza Sailak, behin eta berriz, funtzionarioen legedia laboralei ezin zaiela aplikatu esan digu; gaur egun horrelako zerbait "adostea" ezinezkoa dela esanez. Zergatik egiten dute bi sektoreen arteko horren bereizketa handia? Nolatan ez dizkigute gure lanagatik sortutako oporraldiaren egunak ordezkoen zerrendan konputatzen? Hezkuntza Sailari luzatutako eskaera, irakasle funtzionarioen kudeaketa bera izatea da, hau da, ikasturtean zehar 165 egunetan zerbitzu aktiboan egonez gero, uda kobratzea eta puntuatzea.

Funtzioen berrikusketa

Badira hilabete batzuk, Hezkuntza Sailak konpromisoa hartu zuela gure sektoreko kolektibo guztien funtzioen berrikusketa egiteko. Hala eta guztiz ere, iazko ikasturtean honen inguruan ezer gutxi hitz egin zen eta aspaldi hasi den kurtso honetan ere, ez da ezer aipatu funtzioen berrikusketari dagokionez.

Lan hitzarmena

Sektoreak indarrean daukan Lan Hitzarmena 2003. urtean sinatu zen. Horren ondorioz, bertan jasotako hainbat puntu, guztiz zaharkituta daude. Hezkuntza Sailak, 2018an sinatutako akordioa bertan txertatu nahi du ezer gehiago negoziatu gabe (udaren puntuaketa, adinagatiko arreta zuzenaren murrizketa, funtzioen berrikusketa...). **STEILAS**ek akordioa sinatu zuen, onura handiak jasotzen zituelako sektorearentzat. Era berean, akordio hori abiapuntutzat hartu genuen, eta beraz, beste hainbat gai ditugu negoziatzeko Lan Hitzarmen berria sinatu aurretik eta horrela eskatzen diogu bilera guztietan Hezkuntza Sailari.

Haurreskolak Partzuergoa eta mozorrotutako garapena

2017-2018 ikasturtean Unibertsitatez Kanpoko Hezkuntza Publikoko lan-baldintzak hobetzeko Haurreskolak Partzuergoan inoiz burututako mobilizazio indartsuenak gauzatu genituen. Mobilizazio dinamika bukatutzat eman eta gero, LABek eta enpresak akordio bat sinatu zuten. 2 greba egun deituta zeudenean mobilizazio dinamikarekin horrela bukatzea hanka-sartze nabarmena zela adierazi zuen **STEILAS** sindikatuak, eta akordio hobeagoa lortzeko aukera galdu genuen. Aldarrikapen garrantzitsuak gehitzeko eta zehazteko aukera galdu eta gero, gaur egungo egoerak argi erakusten du arrazoi genuela.

Era berean, akordioak Lan Hitzarmen berrirako abiapuntua izango dela jasotzen du, baina norabide horretan ez da urratsik eman. Gainera, enpresak dio soldata, langile kopurua eta ratioak Aurrekontu Legeak mugatzen dituela eta ezin direla aldatu. Gauzak horrela, Haurreskolak Partzuergoan, azken urteetan sinistarazi nahi izan diguten mozorrotutako garapena salatzea besterik ez zaigu geratzen.

Akordioaren edukiak eta hauen garapen eskasa	
Mobilizazioek onura garrantzitsuenak eguneroko jardunean ekarri zituzten	Negoziatu gabeko gaiak
• Hezitzaileen ordezkapenak eta baimenak betetzea lehen egunetik. • Haurreskola txikietan familiei 8 orduko zerbitzua eskaintzea. • Haurreskolak Partzuergoan egindako lan esperientzia Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle ordezkoen zerrendetan barematzea.	• Ratioak eta haurreskolen tipologia. • Koordinazio lanetarako orduen proportzioa. • Borondatezko Eszedentzia. • Hezitzaileen egonkortasuna eta desplazamenduak saihesteko neurriak. • Lanpostuen permutak. • Formazioa: Irale eta Prest Gara. • Zaharberritze plan propioa diseinatu. • Haurreskolak Partzuergoko etorkizuna ziurtatzeko plana.
Behin-behinekotasun tasa jaisteko neurriak	Eusko Jaurlaritzako Mahai Orokorrak dekretuz onartutako aldagaiak
• Kudeaketa langileak: negoziatzen jarraitzen dugu, adostasunetara heldu ez garen arren. • Hezitzaileentzat ez da oraindik gaia jorratu; Ordezkoen Araudian aldaketa batzuk txertatu dira.	• Aldi baterako ezintasun egoeretan %100 kobratzea. • Soldata eguneratzea, nahiz eta oraindik eros ahalmenean galera izan. • Errelebo kontratuaren baldintzak (2018koa baino okerragoak dira).

Hainbat eta hainbat aldarrikapen eta gai oraindik ez dira landu, nahiz eta akordioak egutegia eta prozedura Mahai Negoziatzailean adostuko direla adierazi.

Beraz, begi-bistakoa da akordioaren hainbat puntu oraindik ez direla bete eta Haurreskolak Partzuergoak benetan behar duen bultzada partxeatu besterik ez duela egiten bere horretan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Haurreskolak Partzuergoari akordioan sinatutako puntuak eta zabaldutako bideak bete eta garatu ditzatela exijitzen diegu beste behin ere.

Haurreskolak Partzuergoak merezi eta behar duen aitortza politikoa borrokatzen jarraituko dugu!

Haurreskolak Partzuergoa **doakoa** eta **hezkuntzan integratua**

Urte konplikatuak ate joka ditugu Haurreskolak Partzuergoan. Jaiotza tasak behera nola egin duen aspalditxotik ari gara ikusten, sufritzen eta abisatzen. Hezkuntzako gainontzeko etapetara poliki-poliki iristen ari den errealitate ukaezina da.

Urte konplikatuak hezkuntzan ate joka ditugun honetan, **STEILAS**ek planteatzen dituen galderak hauek dira: nola kudeatuko du Hezkuntza Sailak errealitate berri hori? Haurreskolak Partzuergoko bizirauepena nola bermatuko du? Honen doakotasunean nola egingo du aurrera? Nola babestuko du Hezkuntza lege berriak Euskal Eskola Publikoa? Eta Haurreskolak Partzuergoa nola integratuko da bertan? Integratuko ote dute?

Save the Children erakundeak 2019ko urrian argitara eman duen "Donde todo empieza" txostenean EAEn 0-3 urte bitarteko haurren % 52,5 matrikulatuta dagoela dio. Txosten horretan bertan salatzen da zera da, familia aberatsen haurren matrikulazio tasak hirukoiztu egiten duela gutxien duten familien haurren matrikulazio tasa. Txostenak arrazoi ekonomikoak eta administratiboak aipatzen ditu egoera horren erantzule gisa. Ondorioz, behar gehien duten familiek eta babes gehien behar duten haurrek mugatua ikusten dute 0-3 etaparekiko sarbidea. Gainera, txostenean garbi azaltzen da 0-3 tartean haurrak matrikulatuta daudenean, hauek eta familiek dituzten onurak, bai psikologikoak eta baita sozialak ere.

Hezkuntzak eta euskal gizarteak hurrengo urteetan biziko dituzten aldaketei aurre egiteko erabakiak hartzeko unea hau da. Beldurrik eta konplexurik gabe, zenbaiten interes eta errelatoaren gainetik, Administrazioari exijitu behar diogu hezkuntza jasotzeko eskubidea gizartearen kohesioaren eta aukera berdintasunaren izenean jar dezala.

STEILASen argi dugu. Haurreskolak Partzuergoaren doakotasuna ezinbestekoa da euskal gizarteak dituen beharrei zerbitzu publiko indartsu bezala erantzuna eman ahal izateko. Horrekin batera, Hezkuntza Sailean integratzea ere berebizikoa da, Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Integrala sortzeko. Haurreskolak Partzuergo PUBLIKO, DOAKO eta UNIBERTSALaren alde lan egiten jarraituko dugu.

Haurreskolak Partzuergorako kudeaketa eredu berria aldarrikatzen dugu: **Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren kudeaketa zuzena**

Hezkuntza Saila esku dagoen Haurreskolak Partzuergoko gerentearen erretiroa gauzatu da. Maite Larrañaga Orbea, enpresa publiko honek izan duen gerente bakarra, 2020ko urtarrilaren 16an jubilatu zen.

STEILAS sindikatuan kritikoak izan gara beti kudeaketa eredu honekin, eta honen inguruko hausnarketa sakona egiteko momentua dela uste dugu. Gaur egun ia 240 haurreskola gara Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ia 200 udalerritan banatuta. Guztira, 1800 hezitzaile inguru arduratzen gara, ikasturtez ikasturte, 6.000 familia eta haurrei zerbitzua eskaintzeaz. Horren guztiaren kudeaketa ezin da enpresa eredu gerentzial batean oinarritu.

Izan ere, egoera horrek prekarietatea eta gardentasun eza ekarri ditu berarekin urte guzti hauetan, Haurreskolak Partzuergoko kudeaketaren ezaugarri nagusi bihurtzera arte. Agortutako eredu bati buruz ari gara, dagoeneko baliagarria ez den eredu bati buruz.

Dinamika horren ondorioz, gutxi batzuen esku gelditu dira hainbat eta hainbat erabaki urte hauetan guztietan. Erabaki horiek, askotan, guztiz arbitrarioak izan dira. Langileen eskubideak modu kontzientean nola urratzen diren ikusi dugu behin eta berriz, gure lan baldintzak zaindu beharrean. Langile horiek gara Haurreskolak Partzuergoko egunerokoa aurrera eraman ahal izateko gure onena ematen dugunak: hezitzaileak eta kudeaketa langileak. Erakunde publiko bat garen heinean, horrelakorik ezin da gehiago onartu.

Era berean, jaiotza tasak behera egiten duen bitartean, Eusko Jaurlaritzak eta Hezkuntza Sailak Haur Hezkuntzako lehen ziklo honetan garatzen dituzten politika pribatizatzaileak salatu nahi ditugu. Urtero, 0 eta 3 urte arteko titulartasun pribatua duten zentroei diru laguntza publikoak ematen dizkie: 26 milioi eurotik gora. Diru publikoari buruz ari gara, eta Haurreskolak Partzuergoak politika horien eragin zuzena pairatzen duen bitartean, laguntza publiko hauen inguruko hausnarketa eta berrazterketa exijitzen dugu: laguntza horietara bideratzen duten diru kopuruaren herena Haurreskolak Partzuegoko aurrekontua osatzera bideratuko balute, doakoa izango litzateke.

STEILAS sindikatuan Haurreskolak Partzuergo publiko, doako, unibertsal, integral, inklusibo, feminista eta euskalduna aldarrikatzen eta borrokatzen jarraituko dugu.

Honenbestez, Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Sailari eskaera zehatza egiten diegu:

Haurreskolak Partzuergoa Hezkuntza Sailean guztiz integratzea eta honen kudeaketa zuzena bere gain hartzea, orain arteko kudeaketa eredua gainditzeko.

Erabaki honen ondorioz, Haurreskolak Partzuergoa Euskal Hezkuntza Publiko integralaren ezinbesteko oinarria izatera pasatuko litzateke.

Gatazkari amaiera eman dion akordioa sinatu dugu

Azaroaren 9ko ordu txikietan, Lan Harremanetarako Kontseiluaren Bilboko egoitzan EAEko Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan hilabeteko greba deialdiarekin amaiatzeko akordioa sinatu genuen **STEILAS**, ELA, CCOO eta Kristau Eskolak. Hilabeteko greba deialdiko lehen 2 egunak pasatu eta gero, bi urte luzeko lan gatazkari amaiera eman zion akordioak. Bi urteotan hamaika elkarretaratze, manifestazio... eta 29 greba egun burutu dituzte sektoreko langileek lan hitzarmen berriaren aldeko aspaldian ikusten ez zen borroka dinamika horretan.

STEILASek sinatutakoan eman zituen bere arrazoiak. Eta arrazoi nagusia sinatutako akordioaren edukietan datza. Adierazi genuen sekulako akordioa zela eta, orain ere, iritzi berekoak gara.

Akordioak jasotakoa aztertuz gero, birkokapenari dagokion atala lorpen nagusitzat hartu beharko genuke. Horrela birkokatzeko aukera izango du gelen itxieragatik bere lanpostua galtzen duen langile orok, eta horrek berezko balio ematen dio akordioari. Halaber, lanpostua galduko duen langilea zehazteko irizpideak guztiz objetiboak dira; borondatez eskatzea eta antzinatasun txikiena duen langilea. Birkokatzeko irizpideak ere ildo beretik doaz; lan poltsan duen antzinatasuna eta sektorean daukana, ondoren.

Jakina, langileak birkokatzeko lanpostuak sortu behar dira, bakanteak alegia. Eta ez nolanahiko lanpostuak, lanaldi osokoak eta behin betikoak izan beharko dira. Eta hori ere lortu dugu akordio honetan. Lan hitzarmenaren eraginpean dauden langile guztiek, beharrezko baldintzak betez gero, erretiro partziala hartu ahal izango dute, lanaldia %75 murriztuta. Horren ondorioz, kontratu mugagabe bat sinatuko litzateke langile errelebo-hartzaile batekin, lanaldi osoa lortuko lukeela azkenean. Eta "kontutxo" horrek sekulako balioa eman dio greba amaitzeko akordioari; horrelako lorpena aitzindaria dela esan genezake.

Egia da uko egin zaiola 58 urtetik gorako irakasleek irakastorduak %25 murrizteko zuten eskubideari. Alabaina **STEILAS**ek langile guztiak baldintza egonkorretan birkokatzea lehenetsi du, baita lan-baldintza prekarioenak dituzten kolektibokoak ere, sektoreko langileen zati handi batek irakastorduak murriztu beharrean.

Langile guztien, lan zama ere arindu egingo da, gehiago edo gutxiago, akordio honen bitartez. AZPko langileen urteko lanaldiak 30 ordu gutxiago izango du ikasturte honetan bertan; Hezkuntzako Laguntzeko espezialistek 97 ordu gutxiago eta astean ordubete gutxienez izango dute koordinaziorako eta 0-3 zikloko langileek 45 ordu gutxiago eta 125 ordu koordinaziorako eta prestakuntzarako. Horrez gain, AZP eta 0-3koek urtean bi egun ordainduta hartu ahal izango dituzte.

Irakasleek berriz, astean 3 ordu osagarri bere lana burutzeko bermaturik izango dute eta 40 ordu osagarri ez-presentzial aitortzen zaizkie urtean, egindako lanagatik.

2017-2020 urteetan lan sarien igoera ere zehazten du akordioak. Igoera bera baino garrantzitsuago da KEk amore eman behar izan ziola lansariak finantzazio publikoari lotzeko asmoari. Lortutakoa ez da gatazkaren hasieran aldarrikatutakoa, baina **STEILAS**entzat nahikoa da galdutako erosahalmenaren zati bat berreskuratze aldera.

Akordioa sinatu genuen LHKko laguntzarekin. Akordioa lortzeko prozedurak hautsak harrotu ditu sektoreko eragile batzuetan. Jakin bagenekien prozedura oso berezia zela; sindikatuok, UGT izan ezik, aurkeztutako elkarrizketarako prozeduraren oso antzekoa izan zen burutu zena eta aitortu behar dugu garapena ez zela guztiz gure gogokoa izan

bertan adierazi genuen bezala. Aldebiko gehiegi izan zen osoko bilkuren kalterako eta sektorean gehiengo nagusia duten bi eragileek, ELAk eta KEk, protagonismo handiago izan zuten.

Baina akordioa ez da lortu aparteko negoziazio prozesu bati esker. LHKn izandako negoziazio prozesua Gizarte Ekimeneko langileen borrokan azken urratsa izan da. Eta borroka gogor eta luze horretan **STEILAS**, CCOO eta LAB sindikatuok, azken momentuan UGTk mobililizatzeari utzi zion, ELArekin batera izan gara, orpoz-orpo, borrokan. Sindikatu guztiok ekarpenak egin ditugu borroka eraginkorra izan zedin eta sektore osoari eragiten dion akordioa lortzearren. Eta lortu dugu, sinatutako akordioa sektoreko langile guztiei eragiten die. Gure ustez, gatazka luze honetan azken faseko negoziazio prozedura mobilizazio guztien gainetik ipintzeak ez dio mesede handirik egiten langileen borrokari.

Borroka luze horretan patronalek amore eman dute. Gure aldarrikapenak, zilegi eta neurrizkoak, onartu behar izan dituzte azkenik patronalek. Bide hau guztia, ordea, luze eta malkartsu bezain gogorra izan da, eta portu onean atrakatu ahal izan badugu, langileok mobilizazioekiko erakutsi dugun atxikimendu kementsuari esker besterik ez dela izan gogora ekarri behar dugu beste behin ere.

Lorpen honek baditu zenbait gako: batasun sindikala, prozesu luze honen bururaino ia iraun duena, **STEILAS**ek azaldu duen akordioak erdiesteko borondate nekagaitza, eta beste sindikatuekin batera mobilizazio deialdiak egiteko orduan malgu jokatzeko agertutako trebetasuna, eredugarria zinez. Halaber, LHKeko bideratzailearekin inplikatutako guztion bilerez erabateko diskrezioz jokatzea eta gure printzipioei zintzo eta leial eustea ere aipagarriak dira **STEILAS**en jarrera gogoangarria azpimarratzeko orduan.

Pozik egoteko arrazoiak ditugun modu berean, erne egotekoak ere ez zaizkigu falta, ordea: patronalei beharrezkoa den guztietan gogorarazi beharko diegu 2013. urtean indarrean zegoen hitzarmena baliogabetu nahi izan zutela era aldebakarrean, estatu mailako hitzarmenera pasarazi nahi izan gintuztela, eta, langileok aurre egin eta epaileek gure alde ebatzi zuten. Eraso hori ere ez dezagun ahaztu! Lehen adierazi dugunez, eroso egon baitira patronalak prozesu osoan, amaieraino ia. Eroso, langileen eskubideen aurkako erasoan.

Pozik egoteko arrazoiak ez zaizkigu, ez, falta. Gogoeta egitekoak ere ez: mobilizazioak eta haiekiko atxikimendu dira akordioa erdiesteko giltza. Hori da grebetara batu ez diren langileei helarazi beharreko mezua, batasun indartsu batek bakarrik lortuko duela langile guztiontzako lan baldintzak duintzea eta hobetzea, alegia.

Badugu, beraz, lankideok, lan eskerga egin beharra, une honetan pozik egoteko arrazoiekin batera. Pozik eta adorez, ekin diezaiogun, bada, lanari eta borrokari!

Berrikuspen medikoak bajan

Gaur egun, gaixo dagoen langile bat, zoritxarrez, zalantzan dagoen pertsona bat da. Alde batetik, "Absentismo" terminoa bereizi gabe erabiltzen delako lanera ez etortze oro aipatzeko, justifikatuta egon ala ez. Eta, bestetik, lan-erreformak formula bat ezarri duelako gaixotasun arruntagatik edo lanekoa ez den istripuagatik bajan egoteagatik lanera falta diren langileak kaleratzeko, baldin eta lanaldi baliodunen %20ra iristen badira elkarren segidako bi hilabetetan, edo %25era, elkarren segidakoak ez diren lau hilabetetan, hamabi hilabeteko aldi baten barruan. Ebakuntza mediko txiki batek edo gripe batek eraman gaitzakete egoera horretara.

Langileari, edozein arrazoirengatik, osasunak huts egiten dionean, hainbat agentek, aintzat hartu gabe langilea ondo ez dagoela, dei dezakete: Osasun Sistema Publikoak, mutuek, Gizarte Segurtasunaren Ikuskaritza Nazionalak, Ikuskaritza Medikoak. Gainera, berrikuspen medikura bajaren lehen egunetik dei zaitzakete.

Zitazioa gutxienez 4 egun baliodun lehenago egin behar dizute, eta zitazioa jaso duzula adierazten duten bitartekoak erabiliz. Ez duzu telefono dei batekin konformatu behar. Are gehiago, inoiz ez eman zure osasun egoerari buruzko daturik telefonoz.

Ez duzu txostenak eramateko betebeharrik, haiek badituzte baliabideak Gizarte Segurantzari zuzenean eskatzeko.

Hitzordura joaten ez bazara, prestazioaren kautelazko etendura hasiko da, eta 10 egun baliodun izango dituzu zergatik ez zaren joan justifikatzeko. Justifikatutzat jotzen da kasu hauetan ez agertzea:

- Osasun Zerbitzu Publikoko medikuak egindako txosten bat aurkeztu duzu, zure egoera klinikoa dela eta bertaratzea gomendagarria ez zela adieraziz.
- Hitzordua 4 egun baliodun baino gutxiagorekin jaso baduzu.
- Behar beste arrazoirengatik bertaratzea ezinezkoa dela egiaztatzen duzunean.

Ez agertzea justifikatutzat jotzen bada, prestazioari berriro abiarazi ko dute eta beste hitzordu bat emango dizute. Ez agertzeko arrazoia nahikotzat jotzen ez bada, edo justifikaziorik aurkezten ez baduzu, prestazioa iraungita geratuko da, eta GSINeko ikuskatzaile medikoak alta medikoa eman ahal izango du ez agertzeagatik.

Cuando una persona trabajadora está de baja puede llegar a ser citado a revisión médica desde el primer día por varios agentes: desde el Sistema Público de Salud, las mutuas, la Inspección Nacional de la Seguridad Social, a la Inspección Médica.

La citación te la deben de hacer con una antelación mínima de 4 días hábiles y por medios que dejen constancia de que la has recibido. No tienes obligación de llevar los informes.

Si no acudes a la cita, se iniciará la suspensión cautelar de la prestación y dispones de 10 días hábiles para justificar por qué no fuiste. Si la incomparecencia se considera justificada, se reanuda la prestación y te darán una nueva cita. Si no es así la prestación quedará extinguida y el inspector médico del INSS podrá expedir el alta médica por incomparecencia.

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Lanbidek txanda-kontratuen laguntzetarako 2020rako egin duen deialdiari; laguntzak 1 milioi eurokoak izango dira

Kontratu horiek iraupen mugatukoak ere izan daitezke, baina betiere kasu horretan kontratuaren amaieran edo lehenago mugagabe bilakatzeko **konpromisoa** jaso bada. Kontratu horien hartzaile diren pertsonek eskakizun batzuk bete behar dituzte: **30 urtetik beherakoak izatea edo 45 urtetik gorakoak izatea**, Lanbiden inskribatuta egotea, enpresarekin iraupen mugatuko kontratua hitzartuta izatea, praktiketakoa, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako, lanekoa ez den praktikaldia garatzen egotea edo kontratu horren edo lanekoak ez diren praktiken indarraldirako ezarritako aldiaren barruan edo amaitu eta biharamunean txandakari izatera igarotzea.

Kalkulatzen da **2020an laguntzarako 115 eskabideri erantzun ahalko zaiela**, txanda-kontratuak formalizatzeagatik. Eta kontratatutako **emakumeen** ehunekoa % 35ekoa izatera irits daitekeela.

8.400 euro kontratatutako pertsona bakoitzeko; kopuru hori % 10 handituko da, txandakaria emakumea bada.

Jaiotza eta adingabeen zaintza

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, jaiotze kasuan, Gizarte Segurantza beste gurasoak 12 asteko etenaldiaren kargu egingo da; lehenengo lau asteak etenik gabe hartu beharko ditu erditzearen ondoren, eta gainerakoak lehenengo urtean. Ama biologikoak nahitaez hartu behar ez duen etenalditik bi aste laga diezaizkioke beste gurasoari. Gogoratu behar dugu 12. astetik 16ra Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak 164/2019 Dekretuan familia eta lana bateragarri egiteko diru-laguntzek indarrean jarraituko dutela.

Adopzioaren, adopziorako zaintzaren edo harreraren kasuan, Gizarte Segurantza guraso bakoitzak sei asteko etenaldiaren kargu egingo da. Etenaldia lanaldi osoan hartzekoa izango da, nahitaez eta etenik gabe, adopzioa gauzatzen duen ebazpen judiziala edo adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren administrazio-erabakia eman eta berehala. Nahitaez hartu beharreko sei asteez gain, gurasoek 16 aste hartu ahal izango dituzte beren borondatez, etenik gabe, adopzioa gauzatzen duen ebazpen judizialaren edo adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren administrazio-erabakiaren ondorengo 12 hilabeteetan. Guraso bakoitzak gehienez ere 10 aste hartu ahal izango ditu bere borondatez hartutako 16 asteen gainean; gainerako asteak, berriz, beste gurasoaren esku geratuko dira. Eskubide hori baliatzen duten bi gurasoek enpresa beran lan egiten badute, enpresa horrek borondatezko 16 asteak aldi berean

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, jaiotze kasuan, Gizarte Segurantza beste gurasoak 12 asteko etenaldiaren kargu egingo da; lehenengo lau asteak etenik gabe hartu beharko ditu erditzearen ondoren, eta gainerakoak lehenengo urtean.

hartzeko aukera mugatu ahal izango du arrazoi onarridun eta objektiboengatik, idatziz behar bezala arrazoituta. Kasu honetan ere,16 aste disfrutatzera heldu ez den gurasoa Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak 164/2019 Dekretuan familia eta lana bateragarri egiteko diru-laguntzak erabili ditzake.

UPV/EHUk orain arteko lan eskaintza publikorik handiena egingo du administrazio eta zerbitzuetako langileentzat

Abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluak unibertsitatean administrazio eta zerbitzuetako langileentzat inoiz egin den lan eskaintza publikorik handiena onartu zuen. Talde horretarako 635 plaza eskainiko ditu: 49 birjartze tasari lotutakoak, 542 egonkortze tasei lotutakoak, eta 44 barne promoziokoak. Errektorego taldeak aurkeztutako proposamenak Gobernu Kontseiluko kideen gehiengoaren babesa izan zuen: aldeko 29 boto, 3 abstentzio eta kontrako boto bakarra.

Enplegu publikoaren eskaintza berri honek Estatuaren Aurrekontu Orokorren 2017ko eta 2018ko legeek enplegua egonkortzeko baimendutako tasa gehigarriak eta 2019. urteari dagokion birjarpen tasa jasotzen ditu, baita barne promozioko prozesu bat ere.

2020an onarri espezifikoen negoziazioa hasiko da, **STEILAS**ek defendatuko du LEPean plazarik lortzen ez duten langileak birkolokatzeko akordio bat, eta horretarako hainbat irizpideren araberako proposamenak egin ditu: gainditutakoen ehunekoa, adina, plaza lortu duten langile egonkorrek liberatutako lanpostuak berrerabiltzea, besteak beste.

Emaitza onak EHUko klaustroko hauteskundeetan

Abenduaren 4an, egin ziren Klaustrorako hauteskundeetan, Batzen hautagaitza (**STEILAS**ek bultzatua, AZPko atalean) izan da garaile, bai botoetan, bai klaustrokide kopuruan.

29 klaustrokidetik, 11 lortu ditu Batzenek. Geroa (LAB) hautagaitzak 10 lortu ditu, "Estabilidad y promoción ya!" (UGT) hautagaitzak 7, eta Aurrerantz hautagaitzak (CCOO) klaustrokide 1.

Batzen-etik eskerrak eman nahi ditugu jasotako babesagatik, langileen eskubideen eta unibertsitate publikoa hobetzearen alde lanean jarraitzeko aukera emango digulako.

En las elecciones al Claustro realizadas el 4 de diciembre, la candidatura Batzen (impulsada por **STEILAS**, sección PAS) ha resultado ganadora tanto en votos como en número de claustrales.

De 29 claustrales, Batzen ha obtenido 11. La candidatura Geroa (LAB) ha logrado 10, "Estabilidad y promoción ya!" (UGT) ha obtenido 7, y Aurrerantz (CCOO) 1 claustral.

Desde Batzen queremos agradecer el apoyo recibido, que nos permitirá seguir trabajando por los derechos de las trabajadoras y trabajadores, y por mejorar la universidad pública.

AZP arloan STEILAS-ek sustatutako BATZEN hautagaitza izan bada ordezkari gehien lortu dituena, IRIen artean ere **STEILAS**ek LABekin batera bultzatu dituen zerrendek hobetu egin dute klaustroko ordezkaritza. Ez da erraza gure arloko emaitzen balorazio zehatza egitea oraindik, baina badirudi egonkor samar mantenduko direla, hurrengo lau urtetan ere, klaustroaren osaketa eta norabidea.

Si en el ámbito del PAS la candidatura BATZEN promovida por **STEILAS** ha sido la que más representantes ha obtenido, en el ámbito del PDI las listas impulsadas conjuntamente por **STEILAS** y LAB también han mejorado su representación en el claustro. No es fácil todavía hacer una valoración definitiva de los resultados, pero parece que la composición y el rumbo del claustro se mantendrán relativamente estables en los próximos cuatro años.

EHU: AURREKONTU HAUEKIN... UNIBERTSITATE PUBLIKOA GARATU EZIN

EHUren 2020ko aurrekontuak onartu ziren abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluan. Oro har, 428 milioi euro gastatuko ditu EHUk datorren urtean, aurrekoan baino %1,5 gehiago, baina duela hamar urte baino %11,4 gutxiago oraindik, 483 milioi izan baitzituen 2010ean. Hartara, azken urteotako igoera txikiekin ere, krisi eta larrialdi garaiko aurrekontuekin jarraitzen du oraindik EHUk, justu-justu biziraupena ziurtatzeko, baina nahikoa ez, inondik ere, unibertsitate zerbitzu publikoaren garapena bultzatzeko. Zer eta goi-mailako irakaskuntza testuinguru gero eta konpetitiboago batean murgilduta dagoenean, unibertsitate pribatuen eskaintza gero eta zabalagoekin. Noiz eta EAEk bere historiako aurrekontu publikorik handienak izango dituenean, 11.774 milioi alegia, atzean utzita hamarkada hasierako estutasunak.

Bien bitartean, Jaurlaritzaren ekarpena Unibertsitate publikoari jaitsi egin da 354 milioi eurotik 326 miliotara eta beste erakunde publiko batzuena, hala Bizkaiko Foru Aldundia nola Bilboko Udalarena ia desagertu. Badirudi gure instituzio publiko batzuek bestelako asmo batzuk dituztela goi-mailako hezkuntzari begira ez direnak hain justu Unibertsitate publikotik igarotzen.

Diru horrekin ozta-ozta heltzen da EHU bere 7.500 langileren soldatak (aurrekontuaren %76,8) eta hiru campusetan banatutako 28 Fakultate eta beste hainbat zentroren funtzionamendua eta mantentzea (gastuen %17,4) ordaintzera. Eta zailtasun handiak baditu eraikuntzak eta azpiegiturak mantentzeko, zer esanik ez haiek berritzeko. Horren adibide argia da Basurtuko Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berria, urte askoan aldarrikatua izan dena eta, azkenik, aurten eraikitzen hastekoak direna.

EHUk aurrekontu hauekin zailtasun handiak ditu ere langile-plantillak duintasunez kudeatzeko, bai Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonalaren atalean, baita irakaskuntza eta ikerkuntzarenean ere: hazi ezin diren plantillak, AZP ratio baxuak, hasi berritan gaizki ordaindutako ikertzaileak eta baita irakasleak ere, batez ere partzialean dabiltzanak, eta abar luzea.

Hitz batean, aurrekontu hauek ez dira nahikoak taxuzko unibertsitate eskaintza publikoari, kalitatezko unibertsitate publiko bati eusteko. Are gehiago urtetik urtera errepikatzen ari diren aurrekontu estu eta urri hauekin, kolokan ari da jartzen gure jendarteak behar dituen ikuspuntu publikotik landu eta garatutako goi mailako hezkuntza proiektu berriak pentsatu eta aurrera ateratzeko aukera.

UPV/EHU: ¿HASTA CUÁNDO CON PRESUPUESTOS DE CRISIS?

Los presupuestos de la UPV/EHU para 2020 fueron aprobados en el Consejo de Gobierno del 12 de diciembre. En total, la UPV/EHU gastará el próximo año 428 millones de euros, un 1,5% más que el año anterior, pero un 11,4% menos que hace diez años, cuando alcanzó los 483 millones en 2010. Así, a pesar de los pequeños incrementos de los últimos años, la UPV/EHU sigue sufriendo unos presupuestos de crisis y emergencia que aseguran su supervivencia, pero que no son suficientes para impulsar el desarrollo del servicio público universitario. Y ello cuando la enseñanza superior se encuentra inmersa en un contexto cada vez más competitivo, con ofertas cada vez más amplias de universidades privadas. Más aún, cuando la CAV tendrá los presupuestos públicos más altos de su historia, 11.774 millones, dejando atrás los apuros de principios de década.

Mientras tanto, la aportación del Gobierno a la universidad pública ha descendido de 354 millones a 326 millones y la de otras instituciones públicas, tanto la Diputación Foral de Bizkaia como el Ayuntamiento de Bilbao prácticamente han desaparecido. Algunas de nuestras instituciones públicas parecen tener otros propósitos de cara a la educación superior que no pasan precisamente por la universidad pública.

Con este dinero apenas llega la UPV/EHU a pagar los salarios de sus 7.500 trabajadores (76,8% del presupuesto) y el funcionamiento y mantenimiento de 28 facultades y otros centros distribuidos en los tres campus (17,4% de los gastos). Y si tiene serias dificultades para mantener las instalaciones e infraestructuras, qué decir de su renovación. Un claro ejemplo de ello es la nueva Facultad de Medicina y Enfermería de Basurto, que ha sido reivindicada durante muchos años y que, finalmente, está previsto que comience a construirse este año.

Con estos presupuestos la UPV/EHU tiene también grandes dificultades para gestionar dignamente sus plantillas, tanto en el apartado de Personal de Administración y Servicios, como en el de docencia e investigación: plantillas que no crecen, ratios bajos de PAS, investigadores e investigadoras y profesores jóvenes mal pagados, sobre todo los que trabajan a tiempo parcial, etc.

En definitiva, estos presupuestos no son suficientes para mantener una oferta universitaria pública de calidad. Es más, con estos presupuestos tan estrechos y escasos que se están repitiendo año tras año, se está condicionando la posibilidad de desarrollar la renovación de nuestra educación superior desde el punto de vista de servicio público que necesitamos.

2019KO IRIEN ARLOKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA

Abenduko Gobernu Kontseiluan 2019ko LEPa ere onartu zen irakasle-ikertzaile arloan. Guztira 146 plaza aterako dira deialdi publikora, haietarik 130 lanpostuak egonkortzeko eta beste hamaseiak promoziorako.

Kopuru horiekin bultzada ona eman zaio irakasle-ikertzaile lanpostuen egonkortzeari, behin-behineko egoeratik behin-betiko postuetara igarotzeari, alegia. Ez ordea, guk nahiko genukeen adinean eta moduan. LEP hau eta gero, hurrengoaren zain geratuko den irakasle-ikertzaile atxiki eta bitartekoen zerrendan inork ez ditu datorren urtean bost urtetik gora beteko atxiki postuan. Baina behin-behinekotasuna Unibertsitateko lanpostuen gaitzik larriena den heinean, are apustu handiagoa egin beharko litzatekeela uste dugu oraindik, plantillak finko egite aldera. Horren ordez egonkortzearen eta promozionatzearen artean nolabaiteko oreka gordetzera jokatu da itxaron zerrenda ezberdinetan, atxiki-bitartekotik agregatu/titularrera, agregatutik osora eta titularretik katedratikora, antzeko portzentajeak aplikatuz, %40-45 alegia, agregatutik titularrerako zerrendan izan ezik: hor ia guztiei eman zaie pasabidea, besteak beste, hurrengo LEPean katedra kopuruak ziurtatze aldera. Ez da hori guk hobesten dugun bidea. Agregatutik Titularrera igarotzeak ez baitu lanposturik egonkortzen eta irakasle-ikertzaile funtzionarioen promozio moduan bakarrik du eragina, bide laborala gutxietsiz.

Baina muga, arazo eta baldintza horiekin guztiekin ere, aurtengo LEParen gainean egiten dugun balorazioa positiboa da, besterik ez bada hainbat urtetan atxikien artean pilatzen joan zen itxarote eta etsipen zerrenda amaiera bidean jartzen duelako.

El paso de Agregado a Titular no estabiliza puestos de trabajo y solo afecta a la promoción del personal docente investigador funcionario, desvirtuando la vía laboral.

Aurtengo LEParen gainean egiten dugun balorazioa positiboa da, besterik ez bada hainbat urtetan atxikien artean pilatzen joan zen itxarote eta etsipen zerrenda amaiera bidean jartzen duelako.

OPE 2019 DE PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR

En el Consejo de Gobierno de diciembre se aprobó también la OPE de 2019 en el ámbito del PDI. Se convocarán un total de 146 plazas, de las cuales 130 serán para estabilizar plantilla y dieciséis para promoción.

Con estas cifras se da un buen impulso a la consolidación de las plazas del PDI. Pero no en la cantidad ni en el modo que a nosotros nos gustaría. Es verdad que tras esta OPE, no quedará en la lista de espera del personal docente investigador interino acreditado nadie con una antigüedad superior a los cinco años. Pero como la temporalidad es la lacra más grave de los puestos de trabajo de la Universidad, creemos que aún habría que apostar más por la consolidación de las plantillas. En su lugar, se ha optado por mantener cierto equilibrio entre la estabilización y la promoción en las diferentes listas de espera, de adjunto/a a agregado/a/titular, de agregado/a a pleno/a y de titular a catedrático/a, aplicando porcentajes similares del 40-45%, a excepción de la lista de agregado/a a titular, en la que se ha dado paso a casi todos, entre otras cosas, para asegurar las cifras de cátedraticos en la próxima OPE. No es ese el camino que nosotros preferimos. El paso de Agregado a Titular no estabiliza puestos de trabajo y sólo afecta a la promoción del personal docente investigador funcionario, desvirtuando la vía laboral.

Pero a pesar de todos estos límites, problemas y condiciones, la valoración que hacemos de la OPE de este año es positiva, ya que pone fin a una lista de espera excesiva que se había ido acumulando entre el profesorado adjunto durante años.

Irakasle kontratatuen zerrendak kudeatzeko formularik onena,

ZERRENDAK BATERATZEA!

Gaur egun indarrean dugun irakasleak kontratatzeko araudia, azken urteetan Hezkuntza Departamentuan hartu diren erabaki politiko anitzen ondoriozkoa da. Irakasle interinoen lan baldintzak hobetzean, aurten aurrera egin bada ere (bost hilabete eta erdi lan eginda udako hilabeteetara kontratua luzatzea eta antzinatasun gradua onartzea) ezin dugu ahaztu, 2008tik Nafarroan pairatzen dugun irakasle kontratatuen zerrenden kudeaketarako araudien bidegabekeria. Garai hartan sindikatu guztiok greba egin genuen **STEILAS**en deitzen dugun gestio toxikoaren aurka. Hamar urte pasa dira eta **STEILAS**ek helburu bera lortzeko borrokan jarraitzen du: araudi eraginkorra, Nafarroako Hezkuntza Sistemak behar duena, eta bidezkoa irakasleendako.

Gaur egungo zerrenda zaharkituak gainditze aldera gure ekimenardatzak bi abiapuntu ditu: **zerrenda bateratua** eta **oposizioa eta kontratazio zerrendak bereiztea**.

Zerrenda bateratuak pertsona guztiak urtean behin ordenatzen ditu, hizkuntza, profila eta espezialitate guztiak kontuan hartuz eta ez du iruzurrezko zerrendarik sortzen kontrataziorako izangaien kopurua biderkatuz beren hizkuntza eta espezialitateen arabera. Sistema argiagoa da irakasleentzat eta kudeatzeko errezagoa Departamenduarendako.

Zerrendak oposizioari lotuta egoteak irakasleak azterketetan aurkeztera derrigortzen ditu estres maila handiz titulu ofizialek akreditatu dizkieten hizkuntza eta espezialitate guztietan; oposizioen notak kontratazio zerrendetako lekua lehenesten duenez, lehiaketa dagoen urtean, lana uztera bultzatzen du kontratua duen jendea eta lan hori ez hartzera lanik gabe dagoena, ikastetxeak irakaslerik gabe geldituz ikasturtea aurrera doan heinean; egoera horren momentu larriena ekaina aldera gertatzen da hainbat irakasle funtzionariok ere ikastetxea utzi behar dutenean oposizioetako epai-mahaiak osatzeko (zerrendetan lan egiteko aukeran egoteko parte hartzea derrigorrezkoa denez mahai ugari baitira). Honenbestez **STEILAS**ek oposizioa lanpostu finkoa ateratzeko tresnatzat hartzen du, baina inolaz ere ez ezinbesteko eskakizuntzat lan egiteko kontratu bat lortzeko.

Gainera, zerrenda kudeaketa eraginkorra izateko beste bi pauso eman behar dira: **zerrenda irekia** urte osoan (pertsona berriak sartu ahal izateko modu arinean) eta urteroko **birbaremazioa** (irakasleen formazioa balioetsiz).

Ezinbestekoa da lehenbailehen irakasle kontratatuei presioa eta prekarietatea eragiten dien zerrenda kudeaketa hori bertan behera uztea eta behingoz pertsonak aurrean jartzea. Modu horretan, haiek aukeratu ahalko dute zein profil, hizkuntza, espezialitate edota jardunaldi erabili eta eskatu nahi duten ikasturte berrirako, eta oposiziora aurkeztu nahi eta ahal duten ala ez. Aldaketa horiekin soilik lortuko dugu kontziliazioa erraztea eta langileen aukerak errespetatzea. Bizitza erdigunean jartzea, alegia.

Detektaezina, Transmitiezina

30 urte baino gehiago pasa dira dagoeneko Munduko Osasun Erakundeak (MOE) abenduaren 1a "GIB/HIESaren Kontrako Borrokaren Nazioarteko Eguna" bezala izendatu zuenetik. Harrezkero, GIB/HIESak izan duen bilakaera oso esanguratsua izan da. Lerro hauen bitartez honen bilakaera azaltzen eta gaur egungo egoerara hurbiltzen saiatuko gara **STEILAS** sindikatuko LGTBIQ+ taldearen izenean. Ahalik eta errespetu handienarekin egin nahi dugu, izan ere, jakin badakigu gai honek artikulu batean jaso ezin daitezkeen erpin asko eta asko dituela.

Hasteko, esan nahi dugu sindikatuko LGTBIQ+ taldetik artikulu hau idazteko erabakia eta iniziatiba hartu dugula ez gaiak guri eragiten digulako bereziki, baizik eta gure kolektiboak honekiko izan duen historiagatik eta kontzientziazio prozesuaren ondorioz. GIB/HIESaren errealitatearen estigma gainditzeko ere berebizikoa da aurreiritziak alde batera uztea eta argi izatea errealitate horrek gizarte OSOA zeharkatzen duela, ez soilik LGTBIQ+ kolektiboa.

GIB/HIES lehen kasuak antzeman zirenetik gaur egunera bitartean egoerak 180°ko bira bat eman duela esan dezakegu, zalantza izpirik gabe. 32 milioi pertsona hil ditu GIBak urte hauetan, MOEaren arabera. Izan ere, jakin behar dugu Gipuzkoako ospitaleetan soilik 80ko hamarkadan 3 pertsona hiltzen zirela astero GIB/HIESak jota. Beraz, aurrerapauso izugarriak eman dira HIESaren prebentzio eta tratamenduan ematen diren erantzunetan. Sendabiderik ez da oraindik aurkitu, baina GIBa duten pertsonen bizi kalitatea asko hobetzea lortu dute erantzun guzti horiek.

GIB/HIESak ez gaitu berdin eragiten munduko toki batean edo bestean jaio, aukera ekonomiko edo beste batzuk izan.

Puntu honetara iritsita, zehaztapen bat egin nahi dugu. GIB/HIESak ez gaitu berdin eragiten munduko toki batean edo bestean jaio, aukera ekonomiko edo beste batzuk izan. Ez dugu datuetan galdu nahi, baina egungo egoera ulertzen lagunduko diguten batzuk emango ditugu (MOEak ematen dituenak):

2018 bukaeran 37,9 milio pertsona bizi ziren GIBarekin.

2018an 770.000 pertsona hil ziren GIBarekin zerikusia zuten arrazoiengatik.

2018an 1,7 milioi pertsona kutsatu ziren.

GIBarekin bizi diren pertsonen 2/3 baino gehiago Afrikan bizi dira (25,7 milio pertsona).

2000 eta 2018 artean egindako esfortzu eta lanaren ondorioz, infekzioak % 37 jaitsi ziren eta tratamenduei esker 13,6 milioi pertsona hiltzea saihestu da.

Gaur egun, tratamendu eta kontrol egokiak izanez gero, GIB/HIESaren birusa detektaezina eta transmitiezina da.

Hala ere, egin diren aurrerapausoen balioa eta prebentziorako eta tratamendurako aukerak ez daude berdintasunean pertsona guztien esku. Zoritxarrez, GIB/HIESak norberarengan izan dezakeen eragina, aukerak eta eskubideak jaio garen tokiak, eskura ditugun baliabideek, informazioak eta egoera sozioekonomikoak baldintzatuko dituzte.

Gure testuingurura bueltatuta, gaur egun gure artean abiapuntu eta iritzi ezberdinak aurki ditzakegu. Alde batetik, kutsatu ziren lehen belaunaldien egoera aipatu nahiko genuke: gaixotasunari aurre egitea lortu zuten eta, gutxigatik, bizirik atera ziren. Orain, aldiz, ahalegin gehienak prebentzioari eta kasu berriak detektatzeari bideratzen ari diren honetan, poliki-poliki gerturatzen ari den egoera bati egin behar diote aurre: 50 urte eta gehiago bete ondorengo bizi-kalitatea mantendu eta hobetu ahal izatea. Hau da, zahartzaroak dakartzan ondorioen eragina beraiengan.

Honi lotuta, urte hauetan guztietan beraien konfiantzazko medikua izan denak erretiroa hartzea ere larritzen die: *nola gauzatuko da aldaketa hori?, mediku berriak jakingo al du nola hartatu nire egoera?, au-*

rreiritziei aurre egin beharko al diet?, konfiantzazko tratua lortuko al dut?... Izan ere, kasu gehienetan GIB/HIESa kronifikatzea lortu den bezala, estigmaren, aurreiritzien eta okerreko sinismenen betikotzeari aurre egin behar diete pertsona horiek behin eta berriz.

Ezingo genuke aipatu gabe utzi gai honi dagokionez emakumeek jasan izan duten ikusezintasuna. Emakume izateak eta GIBa izateak estigma izugarri areagotzen du, eta infekzio osteko errealitatea baldintzatzen du. Infekzioak berak dakartzan ondorioez gain, bizitza sexuala zalantzan jartzera iristen dira kasu askotan, sexurik gehiago ezin izango dutela izan sinistu arte. Gizarte osoaren ardura da estigma hori deseraikitzeko erronkari heltzea.

Bestaldetik, azkenaldian ikusten ari gara nola egungo gazteek GIBarekiko duten jarrera eta harremana beste paradigma baten baitan mugitzen den: kronikoa izatera pasa den infekzio baten aurrean aurkitzen dira. Asko 80ko eta 90eko hamarkadetan bizi ziren egoeretatik oso urrun dauden marko teoriko eta praktikoetan mugitzen dira gaur egun. Errealitate hau ere aintzat hartu beharrekoa da GIB/HIESaren hedapenaren aurrean aurrerapausoak ematen jarraitzeko.

Alabaina, 1997. urtean antierretrobiralekin birusa kontrolpean izatea ahalbidetu eta lortu zenetik, medikuntzak izan dituen aurrerapausoei esker, GIB/HIESa detektaezina eta transmitiezina izatera heldu da, lehenago ere aipatu dugun bezala. Zer esan nahi du horrek? Bada, GIBa duen pertsona batek tratamendu egokia eta kontrol medikua baditu, bere gorputzean birusa detektaezina izateaz gain, ezin izango duela hau transmititu. Aldagai hau ezin zaigu oharkabean pasa gai honi buruz hitz egiten dugunean.

Era berean, gaur egun birusarekin kontaktua izanda ere kutsatzea saihestuko duen botika kalean dago: PrEP delako pilula. Pilula hau gure inguruko herrialdeetan azken urteetan hedatu da eta hemen ez da legalki eskura egon pasa den azarora arte. Momentu honetan, Osasun zerbitzu publikoen bitartez eta dagokion mediku kontrola tarteko, arrisku praktika konkretu batzuen ondorioz infekzio arrisku handiagoa izan dezakegun pertsonei dago bideratuta PrEPa. Argi utzi behar dugu pilula horrek ez dituela bestelako infekzioak saihesten, hala nola: sifilia, gonorrea eta klamidia. Horien aurrean kondoiaren erabilerak ezartzen du babesik eraginkorrena.

Pilula hori hartu nahi duten pertsonek hiru hilabetero kontrol mediku bat pasako dute, helburu bikoitza duena: GIB birusaren kutsatzea saihestu dela baieztatzea eta bestelako infekziorik ere ez dela garatu ziurtatzea. Kontrakorik izango balitz, helburua ahalik eta erantzun azkarrena ematea izango litzateke, infekzio katea moztuko duen tratamendu aproposa ezartzea, hain zuzen ere.

1997. urtean antierretrobiralekin birusa kontrolpean izatea ahalbidetu eta lortu zenetik, medikuntzak izan dituen aurrerapausoei esker, GIB/HIESa detektaezina eta transmitiezina izatera heldu da.

Beraz, gaur egunera arte izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu, GIB/HIESaren errealitatea zeharo aldatu dela ondorioztatuko dugu. Zoritxarrez, oraindik gizartean estigma eta informazio falta izugarria dagoela ere ondorioztatu dezakegu, eta horrek hausnarketara eraman beharko gintuzke.

Azpimarratu nahi dugu GIB/HIESaren aurrean prebentzioa eta zaintza direla norberak hartu ditzakeen babes neurririk eraginkorrenak, eta horretarako eskura dituen tresnak modu egokian erabiltzea dela erabakirik onena. Kondoiaren erabilera baztertu ezin daitekeen bezala, PrEP pilula bezalako tresnak erabiltzea ere gaur egun ezin dugu baztertu, beharrezko formazioa, informazioa eta kontrola ziurtatzen badira. Azken finean, osasun publikoa hobetzeko eta arriskuan egon gaitezkeen pertsonak babesteko tresnak dira guztiak, errealitate eta behar ezberdinetara egokituko direnak.

Bukatzeko, hezkuntza eragile bezala, Administrazioari eta bestelako hezkuntza eragileei aniztasunean oinarritutako aurreiritzirik gabeko sexu heziketa exijitu nahi diegu, errealitatera egokituko dena eta pertsonen arteko harremanak era osasuntsuan eraikitzea ahalbidetuko duena.

AURREKONTUAK

Maiz esaten da bortizkeria matxistaren kontra borrokatu behar dugula eta horretarako gehienetan hezkuntzan jartzen da pisua. Gu bat gatoz, hezkuntza ezinbesteko tresna da, baina kontuz, honi maiz esleitzen zaion eraginkortasun magikoarekin. Bortizkeria matxistaren kontra borrokatzeko denok barnebiltzen gaituen benetako ahalegina eta saiakera behar da. Administrazioak, adibidez, ahalegin horren parte garrantzitsua izan behar du, eta berdintasunez hitz egin baino ekintzetan islatu borondate hori, besteak beste, aurrekontuetan. Kontuan izan behar dugu, nahiz eta jakin bortizkeria pairatzen duten emakumeak egoera sozioekonomiko anitzekoak direla, hau da, kapital kultural zein ekonomikoa ez direla patriarkatuaren kontrako txertoa, era berean egia da, halako egoeretatik atera ahal izateko baliabideak behar direla.

Beste era batera esanda, emakumeen prekarietateak euren kontra egiten du, eta maiz zapalkuntza eta bortizkeria egoeretara giltzapetzen ditu, datuak begiratzea besterik ez dugu: enplegua, soldata arrakala, lan partzialak, pentsioak, tenporalitatea, politika publikoen estaldura eskasak, etab. Zer esanik ez transitoan dauden emakumeen inguruan edota migratuak diren emakumeen inguruan. Argi dago intentzioetatik eta hitz hutsaletatik haratago joan beharra dagoela, erdigunean jartzeko baliabideak jarriz, gobernuak dagokion ardura har dezan eta bizitzaren zaintzan emakumeen gain erortzen diren zaintza lan horiek guztiak bere gain hartuz. Horregatik guztiagatik salatu nahi dugu gobernuak morez mozorrotu nahi izan dituen aurrekontu hauek ez direla aurrekontu feministak, ez dutela bizitza erdian jartzen ezta emakumeen bizitza babesten ere.

idazkaritza feminista

Emakume Idazkaritza gure sindikatuko organo bizia izan da bere sorreratik, orain dela 40 urte baino gehiago. Gure Emakume Idazkaritza Bizkaiko Emakume Asambladaren hezkuntza hausnarketa taldetik jaio zen. Zentzu horretan aurrerakoia izan da, eta ez da harritzekoa, hezkuntza mundua emakume borrokalari askoren etxea izan baita. Partzuergoan, esate baterako, gure afiliazioaren %90a emakumeak dira, hezitzaileetan %97a, hau da, sektore zeharo feminizatua eta kontzientziaduna ordezkatzen dugu. Horregatik, bere sorreratik, material anitzak atera ditugu ikastetxeetan hezkidetza lantzeko, eta tinko lan egin dugu esparru horretan, argi baitugu hezkuntza patriarkatuaren kontra ekiteko eremu eranginkorra dela. Hori horrela, Emakume Idazkaritzaren Hezkidetza materialak arrakastatsuak izan dira.

Askok diote feminismoa dela gure mendeko iraultzarik garrantzitsuena. Ez gara gu neurketa horietan hasiko, baina egia da, gaurko gizarteak ulertu duela dugun egituraren eraldaketak feminista izan beharko duela. Feminismoa modu transbertsalean txertatzen da gero eta gehiago diskurtso politikoetan. Hortaz, gaur egun badakigu estatu propioa nahi badugu, feminista izan beharko duela edo ez dela izango, eta, aldi berean, badakigu astakeria hutsa dela bake garaiaz hitz egitea urtero ehunka emakume hiltzen dituztenean. Feminismoan sinisten dugunoi, bizitza erdigunean jarri behar dela diogunoi, adibidez, gure eguneroko jardueran administrazioari zerbitzu publikoen indartzea exijitzea dagokigu. Eta hori da, hain zuzen ere, gure sindikatuaren ikurra.

Baina zerbitzu publiko kontzeptuekin trabatzen direnak ere feministatzat jotzen dute beren burua, gaur egun denak garelako feministak. Administrazioak berak, murrizketen politika eta zerbitzu publikoen desegitea gauzatzen duenak, ere morez janzten ditu bere aurrekontu eta hitzaldiak. Beraz, argi dago, orain dela 20 urte ez bezala, feminismo hitza ez dagoela satanizatuta, eta zorionez, denbora luzez izan duen estigma hori galtzen doala. Orain hitzen atzean ekintzarik ote dagoen ikusteko gaude. Horregatik guztiagatik, betidanik gure burua feminista izendatu dugunok eta gure jarduera politikoan aurrera eraman dugunoi hitz hori publiko egiteko garaia iritsi zaigu, eta gure izenean bertan txertatzeko. Hortaz, jakinarazten dizuegu Emakume Idazkaritza "**Idazkaritza Feminista**" izatera pasako dela hemendik aurrera.

Askorentzat garrantzi gutxiko kontua izango da, baina feministok ongi dakigu hitzen garrantziaz, izendatuak izan ez garen neurrian ez garelako existitu. Berebiziko garrantzia du gaur egun, zuriketa moreak gure gobernuen politikak mozorrotzen dituen garai honetan, berdintasunaz baino feminismoaz aritzea, hitz larritan idazten den feminismo borrokatzaile batek soilik eragin ahal izango baitu behar dugun iraultza.

Gizarte patriarkalaren logika errotik aldatzeko FEMINISMOtik soilik egin daitekeelako, erradikaltasunetik, bere oinarritik, gure egunerokoan ere aurrerapauso bat emango dugu, horregatik idazkaritza feminista honen erronka ez da soilik hezkidetzan lan egitea izango, baizik eta pedagogia feministarantz abiatzea. "Ez da soilik" diogu, ez dugulako hezkidetzaren lana alde batera utziko, batak ez du bestea kentzen, horren garapen gisa ulertu behar dugu. Hori da hain zuzen ere, pedagogia feministaren izpiritua, garapenenen logikan mugitu bi gauzak uztartuz eta berriak sortuz.

Horregatik guztiagatik, hemen izango gaituzue gure Idazkaritza Feministatik gauza berriak sortzen.

Osasun azterketak

Hezkuntza Sailari **STEILAS**ek eskatu dio Osasun batzordearen bitartez prebentzio-zerbitzuen urteko memoria eta programazioa aurkezteko. Onartezina iruditzen zaigu txosten horien berri ez izatea, eta are gehiago, kontuan hartuta txosten horien barruan zehaztuta egon beharko luketela osasun-azterketak egiteko epeak.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 22. artikuluko 1. puntuan ezarritakoaren arabera, enpresak, langileen osasun-egoera aldian-aldian zainduko duela bermatuko du lanari dagozkion arriskuen arabera. Ulertzen dugu, eta horrela baiezta dezakegu, langile orok eskubidea duela urtean behin laneko osasun-azterketa bat egiteko.

Gaur egun, lauzpabost urtean behin egiten dira. 2013an egindako murrizketen beste ondorio bat. Legeak ezarritako epeak betetzeko eskatzen jarraituko dugu, eta horretarako mediku-sailak langile gehiago kontratatzeko konpromisoa har dezala.

Gogoratu, azterketa medikuak borondatezkoak direla, konfidentzialtasunak erabatekoa izan behar duela eta emaitzak kaltetuei eman behar zaizkiela.

Eusko Jaurlaritzari, legea betearazteko eskaera

2019ko azaroaren 6an, **STEILAS**ek idazkia aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzari (Hezkuntza Sailari), Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak, V. kapituluko 38. artikuluan ezartzen dituen bileretarako deia egiteko. Legeak dio Segurtasun eta Osasun Batzordea hiru hilean behin bilduko dela, edota bertako ordezkariren batek eskatzen duen bakoitzean, eta gaur egun ez da inolaz ere bete. Bilerara deituz gero, osasuna zaintzeko ditugun eskubideak bete ahal izango genituzke. Sailari gogorarazi behar zaio prebentzioko ordezkarien beste eginkizun askoren artean daudela arriskuen prebentziorako planak eta programak prestatzea, abian jartzea eta ebaluazioan parte hartzea. Aldi berean, laneko arriskuen prebentzioko metodo eta prozedurei buruzko ekimenak sustatzea dagokio, bai baldintzak hobetzeko edo dauden gabeziak zuzentzeko proposamenak helaraztea ere.

STEILASentzat bilera horiek ezinbestekoak dira: prebentzio-zerbitzuen urteko memoria eta programazioa ezagutzeko, arriskuen prebentzioari buruzko egoera zuzenean jasotzea, eta lan-baldintzei buruzko dokumentazioa eta txostenak eskuratzeko, horretarako egokitzat jotzen ditugun bisitak eginez.

Itunak-transnazionalak

Azken urteetan erregai fosilak eta beste energia kutsagarri batzuk, nuklearra kasu, pixkanaka deuseztatuko dituztela iragarri duten herrialdeen aurkako auziak gehitu egin dira. Multinazionalek herrialdeak auzitara eramatea posible da multinazionalentzako arbitraje-auzitegien sistema esklusibo bati esker, merkataritza eta inbertsio-itunetan sartuta dagoena; eta horiek erabiltzen dituzte gobernuei beren interesak kaltetuko dituzten neurriak hartzen dituztenean.

Kanpaina iraunkorra Agrotoxikoen aurka eta bizitzaren alde

Kanpainaren helburua honako hauen arteko lotura estua salatzea da: batetik, agrotoxikoen erabilera, eta enpresa ekoizleen eta merkaturatzaileen jarduna; eta bestetik, agronegozioaren kontraesanak eta eraginak populazioen osasunean, naturaren kutsaduran eta mendekotasun ekonomikoan. Gainera, kanpaina horren bidez, nekazarien agroekologia sustatzen dugu, elikagai osasuntsuak ekoizteko eredu gisa, elikagaien subiranotasuna bermatzen eta bizitzaren defentsa lehenesten duena, gizateriaren eta gure planeta komunaren biziraupenaren alde.

La Via Campesinak, bere aliatuekin batera, landa erakundeen eta hirikoen arteko batasuna eraikitzeko deia egiten du. Hau da, ekoizleen, kontsumitzaileen, ingurumenaren aldeko ekintzaileen, ikasleen, bizitzaren aldeko ikertzaileen eta Elikadura Burujabetzaren arteko lankidetza. Horregatik, kanpaina horrek izaera iraunkorra du, prestakuntzakoa, hedapenekoa, mobilizaziokoa eta artikulaziokoa.

Txile

Hirugarren urtez jarraian Europako herrialde batean COP-a burutzeak dakarren eurozentrismo argiaz jabetuta, Klimaren Aldeko Goi Bilera Sozialak onartu egiten du politika horien aurkako protestak eta kritikak erantzukizun handitzat hartzeko erronka. Txileko herriaren aurka burutzen ari diren bidegabekerien eta ankerkerien aurrean, alde batetik amorrutik eta inpotentziatik abiatzen gara borrokan, eta beste alde batetik elkartasunetik eta babesa erakutsiz. Txilen, Herrien Goi Bilera eta Klima Ekintzaren Aldeko Goi Bilera egiten jarraitzea erabaki zen, eta txiletarren ahotsa ere entzun ahal izateko espazio bat sortu da.

Greta Thunberg ekintzaile suediarrak **Klimaren aldeko goi-bilera soziala** bisitatu zuen. Astebete iraun zuen, eta gizarte eta ingurumen arloko ekimenez osatu zen, *Más allá de la COP25: los pueblos por el clima* lelopean. Gizarte zibileko erakundeek bultzatuta, eta krisi klimatikoari aurre egiteko ekintzak aldarrikatzeko. *Fridays for Future* eta *Juventud por el Clima* taldeekin bildu zen Thunberg.

Ecologistas en Acción-ek gutuna bidali zion Teresa Ribera Trantsizio Ekologikorako ministroari, COP25eko anfitrioia izan zen heinean, ahal duen guztia egin zezan goi bilera horretan Genero Ekintzarako Plana bizirik mantentzeko.

COP25en dagoen Women and Gender Constituency (WGC) plataformak, klima aldaketari buruzko gaietan gizarte zibileko emakumeak eta generoa ordezkatzen dituenak, zera adierazi zuen: 2017an COP23an lehen aldiz onartutako Genero Ekintzako Planak ezabatzeko edo husteko arriskua zegoela, eta hori atzerapauso handia izan zitekeela genero-ekitatearen aldeko borrokan.

Larrialdi klimatikoaren eta planetarioaren egoerari aurre egingo dion hezkuntza baten alde

Klimaren Gizarte Gailurrean 'Klimaren eta Planetaren Larrialdietarako Hezkuntza Foroa' egiten ari zela-eta, Ekologistak Martxan taldeak *'Larrialdi klimatikoari eta planetarioari aurre egingo dion hezkuntzaren aldeko Manifestua'* argitaratu zuen.

Testuak zortzi proposamen jasotzen ditu hezkuntza-sistema aldatzeko, egungo larrialdi klimatikoari erantzun ahal izateko.

Erakunde ekologistak manifestuarekin bat egitera gonbidatu ditu herritarrak, GKEak, gizarte eta **HEZKUNTZA** erakundeak.

Parisko Akordioa

Orain arte, gobernuak ez dira larrialdi klimatikoaren eta ekologikoaren parean egon. COP25 Parisko Akordioa indarrean sartu aurreko azken goi bilera klimatikoa izan da. Gobernuak berotze globalaren aurka premiaz jokatzen hasten ez badira, emisioak murrizteko konpromisoak areagotuz eta hori lortzeko politika publikoak ezarriz, berandu izango da berotze globala 1,5 gradura mugatzeko.

CUMBRE SOCIAL POR EL CLIMA
MÁS ALLÁ DE LA COP25: LOS PUEBLOS POR EL CLIMA
6-13 DE DICIEMBRE 2019
MADRID

Enpresa-nazioartekotzea gaur egun goraka doan administrazio publikoen apostu bat da, norberaren lurraldean jatorrizko etxea daukaten enpresek merkatuak harrapatzearen bitartez ehun ekonomikoa dinamizatzea helburutzat dute.

Megaproiektu horiek inpaktu erabat kaltegarriak eragiten dituzte ezartzen diren lurralde eta komunitateen gain: kutsadura eta inpaktu sozioanbientalak, errepresioa eta herri mugimenduaren kriminalizazioa, ustelkeria, komunitateen lekualdaketa masiboak, etb.

Hausnarketa hori irekitzeko, **azaroaren 7 eta 8an Bilbon, Nazioarteko Jardunaldiak** egin ziren.

Amazoni planto!

- Langileok prekarietatera kondenatzen gaitu. Prekarizatzeko formula berriak erabiliz, hala nola, lan harremanen uberizazioa aplikatuz.
- Tokiko merkataritzaren eta ekonomiaren zirkuitu hurbilen suntsipena dakar, auzoetako bizitza komunitarioan ere eragin negatiboa dakar.
- Gure datu pertsonalekin negozioa egiten dute.
- Kontsumismoa sustatzen du. Planeta finituan kontsumo infinituaren logika sustatzeaz gain, kontsumorako produktuen garraioak eta distribuzioak eragiten duen kutsadurak aldaketa klimatikoa azkartzen du.

Boliviako estatu kolpea salatu eta Evo Moralesen hauteskundeetako garaipenaren zilegitasun demokratikoa, Hego Euskal Herriko hiriburu guztietan aldarrikatu da. Gertatutakoaren harira, "herriaren borondatea errespetatzea" exijitu dugu, eta nazioarteko komunitateak "isilik geratu" izana salatu.

Inor ez kale gorrian

Ehunka Gasteiztar irten ginen kalera, etxebizitza eskubidea defendatzeko.

Ez dugu inor kale gorrian ikusi nahi, etxebizitza eskubide bat da!

Hitz eta Lapitz

Foro Soziala

Gaur, Giza Eskubideen Nazioarteko egunean, Herri honetan sufritu dugun guztia kontuan hartuta, adierazi nahi dugu gure gizartean baldintzak sortzen ari direla #bakea eta #GizaEskubideen kultura bat eraikitzeko, oinarri oso sendoekin gainera.

STEILAS sindikatua

Gaur Gasteizko Aldabe Gizarte Etxean egon gara EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO! kanpainaren aurkezpena komunikabideen aurrean. Hemen argazki eta komunikatua .@Eskola_Publikoa #EuskalEskolaPublikoazHarro

Gure Esku

Erreferendumaren aldeko herri ekimenaren egitasmoa eta elkarlanerako proposamena partekatzen ari gara @kafeantzokia|n EHko alor anitzetako eragileekin. #elkarrekin

STEILAS sindikatua

EAEko publikoko irakasleak. Lan Akordio berria negoziatu! steilas.eus/2019/11/27/eae

Arabako ALEA

Aurrekontu "antisozialen" aurrean, greba orokorrerako deia egin dute #Gasteiz-en @EskubideenKarta-ko eragileek. Urtarrilaren 30ean greba orokorra deituta dago alea.eus/gasteiz/157650 ...

STEILAS sindikatua

Euskal Herriko Karta Sozialean gauden eragile sozial eta sindikalok #U30GrebaOrokorra deialdia egin dugu prentsaurre honetan. Aldaketa sozialaren alde.

Pentsio, Lan eta Bizitza Duina .@EskubideenKarta

beep

#Bilbo-ko Euskal Eskola Publikoaren aldeko plataformatik, #Gasteiz-ko @Eskola_Publikoa -ren aldeko kanpainari gure babesa ematen diogu! Euskal Eskola Publikoaz Harro
Informazio gehiago
plataformaeskolapublikoa.eus

xabin arrizabalaga

Lan, pentsio, bizitza ... aurrekontu duinak aldeko @EskubideenKarta ekitaldia Gasteizko Iradier Arena. @STEILAS_ eta @ESKsindikatua ordezkariak fiskalitatea justuagaren alde

steilas

www.steilas.eus

Araba

Eulogio Serdán 5
01012 **Gasteiz**
945 141 104 945 144 302
araba@steilas.eus

UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa
01006 **Gasteiz**
945 013 397 (3397)
steilas-araba@ehu.es

Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1 esk.
48013 **Bilbo**
944 100 298 944 101 360
bizkaia@steilas.eus

UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegiko eraikina 1. solairua
48940 **Leioa** (Bizkaia)
946 012 434 (2434)
946 012 435 (2435)
steilas-bizkaia@ehu.eus

Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz.
20015 **Donostia**
943 466 000 943 453 627
gipuzkoa@steilas.eus

UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio Mª Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1
20018 **Donostia**
943 018 436 (8281)
943 018 140
steilas-gipuzkoa@ehu.eus

Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea
31014 **Iruñea**
948 212 355 948 229 790
nafarroa@steilas.eus